

Izenburuak berak garbi adierazten duen bideetatik doa 1981-ean euskarazko poesiaz Irun saria irabazi zuen liburu honen mamia. Bertako kontakizun eztsuak igarri gabe erooten gaitu orrialdeen zurrumbilo gozo horren biran, sentipenak miakatuz doan irakurgaiaren zehar.

Aintzina faunoak izaten ziren gehienbat hor egiten diren bezalako deiak egiten zituztenak, lamiaren bat edo beste ezik; baina, orain agiri denez, era berriko maitagarriak. Holako eskari eta eskaintza dabil orrialdeak zehar, sorgin-haize giroz:

*nerekin bazatoz  
nerekin eta nere lagunekin*

diolarik, akelarrerako deia iduritzen zaigu, edo behintzak holako susmoak hartzen ditugu Arantxaren poema hortan. Baina, bere heinean ez da hainbesteraino, irakurketa jarraituaz ohartuko garenez. Behar bada, eskaintzen dituen ilusioak handiagoak dira, eta ilusio horiek arin erooten gaitu liburuaren barna.

Hasieratik azkeneraino oharpentsua da, kolore eta usaiak ere nabari direla. Lan polita, euskara goxo eta klaru batean idatzia, aisa irakurtzekoa eta behar bada hizkuntzaren erabilkera hortan dago bere graziaz gehiena eta magia zerbait:

*Gurekin bazatoz  
hondamendiaren bila  
borrokazko banderen negar berderaino*

eta borrokazko banderak ere, ez dakit negar berdez ala negar gorritz, baina gero ezagutu ditugu gure gizarte setati eta ero hontan, bandera guziak errespetatu ezinez. Baina, banderok, guziak batean ez dute balio gizon bakar baten bizitzak haina. Banderen borroka baino ez ote da hobe maitasunaren magala?

Zuk, Arantxa, segi poesiaz gizarte honi arantzak kentzen.

*Ots.*